

GUGGENHEIM BILBAO XX 1997  
2017



**URTEURRENA  
ANIVERSARIO**

ARTEAK DENA ALDATZEN DU / EL ARTE LO CAMBIA TODO

PRENTSARAKO TXOSTENA 2016-10-6

## **XX. Urteurreneko ospakizunen egitaraua aurkeztu du Guggenheim Bilbao Museoa**

- Urteurrenaren ospakizunak Museoaren jardunean txertatuko dira 2016ko urritik 2017ko urrira.
- “Arteak dena aldatzen du” lema izango du urteurrenak.
- Erakusketa egitarau berezia eta euskal artista gazteei eta tokiko kultur eragileei Museoeko guneak eskaintzea Urteurreneko gakoetako batzuk izango dira.

### **SARRERA**

Guggenheim Bilbao Museoaren inaugurazioaren 20 urte beteko dira 2017an; museoaren irekierarekin batera sartu zen Bilbo nazioarteko arte-giroan eta hiria turistez betetzen hasi zen. Urteurrenerako urte bat geratzen dela, Museoak 12 hilabete horietan garatuko diren jardueren behin-behineko egitaraua aurkeztu du. Jarduera horiek tokikoentzat zein hirira bisitan datozenentzat izango dira, eta helburu hauek izango dituzte: Museoak nazioarteko arte-giroan duen erreferentziazko lekua indartzea; mundu osoko bisitariak erakartzeko ahalmena sendotzea; tokikoekin harremanak estutzea, arte- eta kultura-komunitatearen partaidetza sustatuz; Museoak haren arte-ondarearekin duen konpromisoa berritzea; eta Bilboko, Bizkaiko eta EAEko ekonomiaren, gizartearen eta kulturaren sustatzaile giza duen lekua irmotzea.

Urteurreneko ospakizunak Museoeko jardunaren parte izango dira 2016ko urritik 2017ko urrira. Tarte horretako jarduerak iragartzeko “Arteak dena aldatzen du” lema hautatu da, Museoa ireki zenetik Bilbon gertatutako aldaketak eta arteak eraldatzeko ahalmena duela aintzat hartu ondoren. Ideia horrek gidatuko du hurrengo hamabi hilabeteetako jarduna. Horrez gain, Museoak logotipoaren aldaera berezi bat diseinatu du eta webgune bat eraikiko du ospakizuneko jarduerak iragartzeko; hurrengo hilabeteetan emango da argitara.

Aipatzekoa da Bizkaiko Foru Ogasunak, Museoaren XX. Urteurrena dela-eta, zerga-abantailak eskainiko dizkiela ospakizunarekin lotutako gastuak eta inbertsioak egiten dituzten enpresa eta erakundeei.

Hiru eremutan garatuko da urteurreneko jardun berezia:

- **Arte eremuan**, Guggenheim Bilbao Bildumaren artapen-proiektu handia abian jarriko baita eta erakusketa-programa berezia antolatu baita

- **Tokiko kultur eragileen eta euskal artisten alorrean**, eragileekin lankidetzak ezarriko baitira TopARTE programaren bidez, zeinetan Museoan EAeko arte- eta kultura-erakundeen jarduerak egingo diren, eta euskal artista gazteei artelanak Museoan erakusteko aukera emango baitiote
- Azkenik, **hiritarrentzako ospakizun-ekimenak** eskainiko dira, hurrengo hilabeteetan iragarriko direnak



## 1. ARTE EREMUA

### Guggenheim Bilbao Bilduma

Guggenheim Bilbao Bilduma herritar guztien ondarea da, eta horregatik haren artapenak lehenetsua du. Osagai teknologikoak dituzten hamalau artelanen artapen-proiektua abian jarriko da; sistema elektrikoak zein elektronikoak, zirkuitu hidraulikoak edo gas instalazioak dituzten artelan horiek, besteren artean honako hauek: Daniel Buren-en *Arcos rojos/Arku gorriak*, Fujiko Nakaya-ren *Laino eskultura 08025 zk. (F.O.G.)*, Yves Klein-en *Su iturria*, Jenny Holzer-en *Bilborako instalazioa* eta Juan Muñoz-en *Itzala eta ahoa*.



### Erakusketa programa

Erakusketen egutegiari dagokionez, Museoak kalitate handiko arte-programazio nabarmena prestatu du, askotariko ikusleentzako erakargarria dena, era askotako artelanak ikusgai izango baitira: Parisko XX. mende amaierako abangoardiakoak, AEBko Espresionismo Abstraktuaren protagonistek egindakoak, bai eta arte moderno eta garaikidearen ordezkari gailenek sortutakoak (Bill Viola, Georg Baselitz eta David Hockney, besteak beste). Horiei 2016ko amaieran irekiko diren eta 2017an zabalik izango diren erakusketak gehitu behar zaizkie: *Francis Bacon: Picassotik Velázquezera*, *Albert Oehlen: Irudiaren atzean*, *Herman eta Margrit Rupf Bilduma* eta *Fiona Tan: Ekialdeari begira, galduta*.



**Francis Bacon: Picassotik Velázquezera**

2016ko irailak 30–2017ko urtarrilak 8

Aretoak: bigarren solairukoak

Komisarioa: Martin Harrison

*Francis Bacon: Picassotik Velázquezera* erakusketak Francis Bacon-en 50 pintura garrantzitsu eta erakargarriren aukeraketa erakusten du —orain arte ia erakutsi gabeko artelan asko daude—, baita bere ibilbide artistikoan eragina izan zuten maisu klasikoek eta modernoek 30 bat artelan ere.

Frantziako eta Espainiako kulturek Irlandan jaiotako artista britainiar honetan utzitako aztarnan sakontzea du helburu erakusketak: Bacon frankofilo sutsua zen eta ondo ezagutzen zuen espainiar maisu handien artea, adibidez, Velázquezena. Baconek 1927an Pariseko Paul Rosenberg galeriako *Cent dessins par Picasso* erakusketa bisitatu ondoren heldu zion pintore izateari. Biziki interesatu zen frantses literaturarekin, Racine, Balzac, Baudelaire eta Proust gogotsu irakurri zituen, eta Frantzia finkatutako pintoreen artearen zale amorratua izan zen, adibidez, Manet, Degas, Gauguin, Van Gogh, Seurat, Matisse eta Picassorena, baita lehenagoko garaietako sortzaile frantsesena ere: Ingres, Géricault eta Daumier.

Parisen 1920ko eta 1930eko hamarkadetan Picassoren lana ezagutu zuen, baina espainiar kulturarekin harremana ere beste modu batean antzeman daiteke: Velázquezen 1650eko *Inozentzio X.aren erretratua* lanak obsesionatzen zuen. Jatorrizkoa Doria Pamphilj galerian ikusteko aukera izan zuen, 1954an Erromara egindako bidaia batean, baina lan horretatik abiatuta, motibo bera erabiliz, 50 pintura baino gehiago sortzeko, Velázquezen lanaren kopiak buruan edukitzea nahiago izan zuen (ez jatorrizkoa). Velázquezen lanez gain, Baconek biziki gogoko zituen beste maisu espainiar batzuen lanak, besteak beste, Zurbarán, Greco eta Goyarenak, Madrilgo Museo del Pradoan ikusi zituenak hainbatetan, 1956an bertan lehen aldiz izan ondoren.

Guggenheim Bilbao Museoak antolatutako erakusketa Grimaldi Forum Monaco-rekin elkarkidetzan.

Francis Bacon, *John Edwards-en erretraturako estudioa* ('Study for Portrait of John Edwards'), ca. 1984

Olio-pintura eta pastela mihise gainean, 198 x 147,5 cm.

Bilduma pribatua, Londres

© The Estate of Francis Bacon. Eskubide guztiak jabetunak dira.



***Albert Oehlen: Irudiaren atzean***

2016ko urriak 21–2017ko otsailak 5

Aretoa: 105.a

Komisarioa: Petra Joos

Albert Oehlen (Krefeld, Alemania, 1954) azken hamarkadetako pintore gailenetako bat da, baita Bigarren Mundu Gerra osteko Alemaniako artista polemikoenetako bat. Gaur egungo artearen erakusle den estiloa du, eta hura sortzeko hainbat iturri eta baliabide uztartzen ditu: publizitatearen teknikak, espresionismoaren pintzelkada, surrealismoaren keinua eta ordenagailuz sortutako irudiak. Arte-giroan pintura “zaharkitutako” baliabidea dela eztabaidatzen da aldian-aldian, eta Oehlenek eztabaida horri ekarpena egiten dio haren artelanen bidez. Azken urteetan Oehlenen pinturek artistaren gai nagusiaren garapena erakutsi dute, alegia, askatasunarena —artistak berak azaldu du horixe dela ardatza—; mihisea jorratzeko ausardia eta kontrolik eza askatasun horren erakusle dira. Antzinako pinturaren hiztegia gordetzen duten teknika berriak erabiltzen ditu Oehlenek eta horrek sentazio bitxia sorrarazten du, paradoxikoa, zerbait berria baina ezaguna dela sentitzen baitugu. Artista kontzeptuala da Oehlen, pintura baliabidetzat duena. Horren inguruan honakoa esan du artistak: “Bakoitzak nahi duena pentsa dezala. Aspergarria da esanahien inguruan hitz egitea. Publikoaren ulemena eta publikoarekiko konplizitateak ez zaizkit ardura. Norberak nahi duena senti dezala”.

Guggenheim Bilbao Museoa antolatutako erakusketa

Albert Oehlen, *Titulu gabea* 2016.

Olio-pintura, berniza eta papera mihise gainean, 250 x 250 cm.

Artistaren eskaintza

© Albert Oehlen



***Hermann eta Margrit Rupf Bilduma***

2016ko azaroak 11–2017ko apirilak 23

Aretoak: 305., 306. eta 307.a

Komisarioak: Susanne Friedli eta Petra Joos

Hermann Rupf joan den mendeko Suitzako irudi interesgarrienetako bat izan zen. xx. mendearen hasieran Parisera joan zen, banku jardunean Daniel-Henry Kahnweiler-ekin lanean ibili ondoren. Ez zuen arte-jakintzarik, baina ikuspegi zabala, eta kulturarekiko interes handia, zuenez, gustu berezia garatu zuen eta Braqueri, Deraini eta Picassori, besteak beste, artelanak erosten lehenengotarikoa izan zen. Rupf Bernara itzuli zenean, bere garaiko artea biltzen jarraitu zuen. Margrit Wirzekin ezkondu zen 1910ean eta horrek bildumatzaille grina areagotu zion; Lehen Mundu Gerran Kahnweiler hartu zuten etxean eta artista asko ezagutu zituzten, hala nola, Kandinsky eta Klee. 1954an, Hermann eta Margrit Rupf-ek 250 artelan inguruko eta argitalpen askoko bilduma dohaintzan eman zioten haien izena duen fundazioari, Bernako Kunstmuseum-en dagoenari. Rupf senar-emazteen asmoei jarraiki, fundazioak artelanak erosten segitu du, batez ere gaur egungo artistenak.

Guggenheim Bilbao Museoa antolatutako erakusketa

Pablo Picasso, *Gizon baten burua (Tête d'homme)*, 1908

Olio-pintura ohol gainean, 27 x 21 cm.

Hermann und Margrit Rupf –Stiftung, Kunstmuseum Bern

© Sucesión Pablo Picasso, VEGAP, Madrid, 2016



***Fiona Tan: Desoriente***

2016ko abenduak 22–2017ko martxoak 19

Aretoa: Film & Video, 103.

Komisarioa: Manuel Cirauqui

Zinema, bideo eta argazkilaritzaren arteko bidegurutzean dira Fiona Tanen (Pekanbaru, Indonesia, 1966) artelanak. Mundu deskolonizatuko identitateak aztertzen dituzte, Mendebaldeak historian ondutako mito eta kondairen aldean. *Ekialdeari begira, galduta* instalazioaren abiapuntua Venezia da, XIII. mendean Ekialde Urruna esploratzeko eta sortzeko zentro estrategikoa. Marco Polo veneziar esploratzaile ospetsuak bere *Munduko mirarien liburua* adierazitakotik ere abiatzen da. Aurrez aurre dauden pantailetan, bi film kontakizun paraleloki garatzen dira: aurrez aurre jartzen dira Ekialde oparo eta kaotikoko bitxikerien sorta bat eta kolonien osteko egungo Asia globalizatuko bizimoduei eta ekoizpen motei buruzko muntaketa dokumental bat. Bi sekuentzien arteko konexioa pixkanaka argitzen da, ahots batek esploratzailearen liburuaren pasarte jakin batzuk irakurtzen dituen bitartean; horietatik, kontinente zoragarri baten irudia ateratzen da, tarteka existitzen ba ote den ere zalantza dugun arren.

Guggenheim Bilbao Museoa antolatutako erakusketa

Fiona Tan, *Ekialdeari begira, galduta (Disorient)*, 2009.

Bi kanaleko koloretako bideoinstalazioa, soinuduna, 17 min eta 19 min 30 s.

Solomon R. Guggenheim Museum, New York. Zuzendariaren Nazioarteko Batzordearen funtsekin eskuratua, 2014

2014.120





### *Espressionismo Abstraktua*

2017ko otsailak 3–ekainak 4

Aretoak: bigarren solairukoak

Komisarioak: David Anfam, Lucía Agirre eta Edith Devaney

Espressionismo Abstraktua mugimendu bat izendatzeko erabili zen 1946an lehenbiziko aldiz; hala ere, mugimendu horretako artelanik ez zen gehitu AEBko museo handietako bildumetara 1950ko hamarkadara arte. Orduan erosi ziren ordezkari nagusi ziren Jackson Pollock, Mark Rothko, Franz Kline, Clyfford Still, Philip Guston, Barnett Newman eta beste batzuen lanak. 1958an New Yorkeko Museum of Modern Art-ek erakusketa bat antolatu zuen, neurri handi batean, zuela gutxi erositako artelan horiek erakusteko: *AEBko pintura berria* zuen izenburu; Espressionismo Abstraktua terminoa erabili beharrean, berritasuna azpimarratzea eta AEBko mugimendua zela nabarmentzea aukeratu zuten. Europara ekarri zen erakusketa 1959an: Basileara, Milanera, Madrilera, Berlinera, Amsterdamera, Bruselara, Parisera eta Londresera. Harrezkero ez da horrelako erakusketa handirik egin Europan, nahiz eta mugimenduaren ordezkari askori atzera begirako handiak eskaini, besteak beste, Gustoni, Pollocki eta Rothkori. Erakusketa honek asmo du mugimenduari beste modu batean heltzea: unitariotzat jotzen den arren, adar asko izan zituen eta konplexua izan zen. Argi azalduko du artista gehienek artegintza berezia, pertsonala, zutela; elkarren arteko harremanak eta eragiteko moduak ere agerian jarriko dira. Erakusketa hau aukera paregabea da Guggenheim Bilbao Museoa mugimendu horretako artelanak erakutsi dezan: Ekintza-pinturako edo *Action Painting* joerako lanak, besteak beste, Willen de Kooning-en *Villa Borghese* (1960), zein Kolore Eremuen edo “isiltasunaren” pintoreen obrak, esaterako, Mark Rothko-rena.

Royal Academy of Arts-ek, Londres, antolatutako erakusketa Guggenheim Bilbao Museoaekin elkarkidetzan antolatutako erakusketa.

Clyfford Still, *PH-950*, 1950

Olio-pintura mihise gainean, 233,7 x 177,8 cm

Honen eskaintza: Clyfford Still Museum, Denver, Colorado

© VEGAP, Bilbao, 2016



***Pello Irazu: atzera begirakoa***

2017ko martxoak 10–ekainak 25

Aretoa: 105.a

Komisarioa: Lucía Agirre

Pello Irazu gaur egungo arte garaikidearen irudi gailena da; 1980ko hamarkadatik esku-hartze handia izan du euskal eskultura berritzean. Hiru hamarkadetan ibilbide oso koherentea egin du, askotariko diziplinak jorratu arren, eskultura —formatu txikikoak, instalazioak eta objektu hibridoak tartean—, argazkigintza, marrazketa eta horma-irudigintza; artelan guztietan gure gorputzaren, objektuen, irudien eta espazioen arteko loturak jorratzen ditu. Erakusketa honetan Irazuren 30 urteko karrerari atzera begirakoa egingo zaio: ibilbide artikulatua izango da eta Irazuren artegintzaren mugariak azalduko dira. Artistak gailu bat sortu du erakusketa egituratzeko eta antolatzeko, gailu hori, gainera, haren artegintzaren lantzen dituen kontzeptuen adibide da: korridore handi bat egongo da eta haren inguruan beste gune batzuk, zirkularrak, taxutuko dira. Bisitaria espazioa hainbat modutan aztertzeak aukera izango du, hainbat ibilbide posible izango baitira. Nolanahi ere, antolaketa kronologikoa ere izango denez, zirkuluek “etengabeko itzulera” ahalbidetuko dute, artelanak egitean etengabe gertatzen den bezala; izan ere, ibilbidearen amaieran hasierako lanak gogora ekartzen dituzten argazkiak eta eskulturak egongo dira.

Guggenheim Bilbao Museoa antolatutako erakusketa

Pello Irazu

*Lo dagoen lurra (La tierra que duerme)*, 1986

Altzairua eta olio-pintura, 66 x 120 x 39 cm

Soledad Lorenzo Bilduma, epe luzeko mailegua MNCARSen

© VEGAP, Bilbao, 2016



**Pierre Huyghe: (*Titulurik gabea*) *Giza maskara***

2017ko martxoak 30–uztailak 16

Aretoa: Film & Video, 103.

Komisarioa: Manuel Cirauqui

Pierre Huyghek fikzioaren eta errealitatearen arteko muga lausotzen du haren artelanetan, beste mundu bat eraikitzeko: zehatz-mehatz eta maisutasunez taxututako inguruneetan, pertsonak eta txotxongiloak bat dira eta berdin jokatzen dute, eta animalia eta landare fantastiko eta errealak nahasten dira. (*Titulurik gabea*) *Giza maskara* (2014) lana Japoniara garamatza, tsunamiak eta Fukushima hondamendiak jotako paisaiara. Bertan, benetako gertakizun batean oinarritutako eszena bat garatzen da: jatetxe huts eta kalamastra batean, tximino bat, japoniar antzerkiko maskara tradizional bat daramala, heltzen ez diren bezeroen zain dago; gora eta behera dabil, bueltaka, urduri, eta gelditu egiten da inor espaloitik datorren entzuteko edo leihotik begiratzeko. Dekoratu irreal batean harrapatutako pertsonaia horren emanaldiaren gaia, artistaren hitzetan, giza kondizioa da.

Guggenheim Bilbao Museoa antolatutako erakusketa

Pierre Huyghe (*Titulurik gabea*) *Giza maskara* [(*Untitled*) *Human Mask*], 2014 (fotograma)

Koloretako filma, stereo soinua, 2:66 formatua, 19 min

Hauen eskaintza: artista; Hauser & Wirth, Londres; eta Anna Lena Films, Paris



***Paris, mende amaiera: Signac, Redon, Toulouse-Lautrec eta garaikideak***

2017ko maiatzak 12–irailak 17

Aretoak: 305., 306. eta 307.a

Komisarioa: Vivien Greene

*Paris, mende amaiera: Signac, Redon, Toulouse-Lautrec eta garaikideak* erakusketan ehun bat artelan ikusgai izango dira, pinturak, marrazkiak, grabatuak eta paper gaineko lanak. Horien bidez aztertuko da XIX. mende amaierako Parisko arte-giroa, zehazki, Frantziako abangoardia gailenen inguruko hausnarketa egingo da, arreta berezia eskainiz Neoinpresionismoari, Nabis taldeari eta Sinbolismoari. Garai horretan asaldaketa politikoa eta aldaketa soziala bizi izan zuten artistek eta horien isla izan ziren orduan sortutako arte-mugimenduak. Jorratu zituzten gaiak, hala ere, aurreko impresionisten bertsuak ziren: paisaiak, hiri modernoaren ikuspegiak eta aisialdiko eszenak; horiez gain, irudipen fantastikoak eta introspektiboak ere landu zituzten. Abangoardia horietako ordezkari gailen batzuetan jarriko du arreta erakusketak: Paul Signac, Maximilien Luce, Maurice Denis, Pierre Bonnard, Félix Vallotton, Odilon Redon eta Henri de Toulouse-Lautrec.

Guggenheim Bilbao Museoa antolatutako erakusketa

Pierre Bonnard

*Pertsonak kalean (Personnages dans la rue)*, ca. 1894

Olio-pintura paper gainean, taula gainean muntatua, 24 x 25 cm

Bilduma pribatua





**Bill Viola: atzera begirakoa**

2017ko ekainak 30–azaroak 9

Aretoak: bigarren solairukoak

Komisarioa: Lucía Agirre

Bill Viola gaur egungo artista gailenetako bat da, bideogintzaren aitzindarietako bat izan zen, baita irudia mugimendua darabilten lanen azterketa egiten lehenengotarikoa ere. AEBko artistak bizitzaren zikloaren, heriotzaren eta birsortzearen inguruko hausnarketa egiten du, elementu primarioak erabiliz, besteak beste sua eta ura. Tempoak eta eskala ere aldatzen ditu, ikuslearengan harridura sorrarazteko eta hura hunkitzeko. *Bill Viola: atzera begirakoa* erakusketan gaika eta kronologikoki ikertuko da Violaren ibilbidea, 1970eko lanetatik, hasierakoak, esaterako *Igerileku islatzailea* (*The Reflecting Pool*, 1977–79), azken aldiko instalazio monumentaletara, tartean, *Egunero aurrera eginez* (*Going Forth By Day*, 2002), *Suzko emakumea* (*Fire Woman*, 2005), *Tristanen igoera* (*Tristan's Ascension*, 2005), *Ameslariak* (*The Dreamers*, 2013) eta *Alderantzikatutako jaiotza* (*Inverted Birth*, 2014). Erakusketak helburu du artistaren lengoia izandako garapena azaltzea; izan ere, eboluzio hori erreprodukzio-baliabideen sofistikazioarekin batera gertatu da. Gainera, lengoia horrek lotura sakonak ditu artaren historiarekin, espiritualtasunarekin, kontzeptualizazioarekin eta hautematearekin. Violaren lanek, finean, zentzumenak zirikatzen dituzte, denborazkotasunaren eta transzendentziaren inguruko hausnarketa eragiteko.

Guggenheim Bilbao Museoa antolatutako erakusketa

Bill Viola, *Tristanen igoera* (*Mendi baten soinua ur-jauzi baten azpian*) [*Tristan's Ascension* (*The Sound of a Mountain Under a Waterfall*)], 2005

Bereizmen handiko koloretako bideo-proiektzioa; lau soinu-kanal, baxu-bozgorailua (*subwoofer* 4.1)

580 x 326 cm, 10 min, 16 s Antzezlea: John Hay

Studio Bill Viola © Bill Viola, Argazkia: Kira Perov



**Georg Baselitz. Heroiak**

2017ko uztailak 14–urriak 22

Aretoa: 105.a

Komisarioak: Max Hollein eta Petra Joos

Georg Baselitz (1938) gure garaian eragin handia izan duen pintore eta margolaria da. 1965 eta 1966 oso urte emankorrak izan ziren harentzat: *Heroiak* (*Heroes*) pintura serie paradoxikoa eta dramatikoa sortu zuen. *Heroiak* eta *Mota berriak* (*New Types*) lan-multzo adierazgarriak dira, 1960ko hamarkadako Alemaniako artearenak. Erakusketa honek bi multzo horiek izango ditu gai; lehenbiziko aldiz landuko dira sakonetik. Pintura erraldoiak dira, zeinetan irudi asaldagarri eta desafiataileak agertzen diren, eta aspaldi sortu bazituen ere, esanguratsuak dira oraindik irudi anbiguo, profetiko eta zaugarri horiek. Horien bidez gizarte gaiekiko hausnarketa egiteaz gain, Baselitzek berak gizartean bertan betetzen zuen lekuaren inguruko analisia egin zuen. Frankfurteko Städel Museum-ek antolatu du erakusketa Guggenheim Bilbao Museoarekin lankidetzan.

Frankfurteko Städel Museum-ak antolatutako erakusketa, Guggenheim Bilbao Museoarekin elkarkidetzan.

Georg Baselitz  
*Bonjour Monsieur Courbet*, 1965  
Olio-pintura mihise gainean, 162 x 130 cm  
Thaddaeus Ropac Bilduma, Paris-Salzburgoko



***Ken Jacobs: Gonbidatuak***

2017ko uztailak 27–azaroak 12

Aretoa: Film & Video, 103.

Komisarioa: Manuel Cirauqui

Ken Jacobs 1960ko eta 1970eko hamarkadetako Neoabangoardismoaren aitzindarietako bat izan zen, eta Bigarren Mundu Gerra osteko zinema esperimentalaren irudi gailenetako bat da. Film-Makers' Cooperative eta The Bleeker Street Cinema taldeen kide izan ondoren, Millennium Film Workshop elkarte eta 1966an, emazte Flo Jacobsekin batera, baita Binghampton Unibertsitateko zinema ikasketak arloa ere. Jacobsek ikusteko ekintza eta ikuslearen eta irudiaren arteko harremana aztertu zituen, eta 1971n *Tom, Tom the Piper's Son* filma egin zuen; bi orduko pelikula bat da, 1905eko film labur batean oinarritutakoa. 1990eko hamarkadaren amaieran aldera, artistak "eternalismo" kontzeptua garatzen hasi zen: hiru dimentsioko ilusioak sortu zituen argia eta irudi arrunten arintasuna manipulatu. *Gonbidatuak* (*The Guests*, 2013) orainsu egindako lanetako bat da, eta kritikak lan gorenentzat hartu du. Artistak abiapuntutzat hartu zuen Lumière anaien lehenengotariko filmetako bat: bertan ezkontza baten gonbidatuak ospakizun-gunera sartzen dira, XIX. mende bukaerako Parisen. Jatorrizko pelikula (zinta) moztu zuen Jacobsek eta estereoskopikoki birsortu zuen. 3D betaurrekoak erabilia, fotograma bikoiti eta bakoitiak bat egiten dute eta hiru dimentsioko irudia hauteman dezake ikusleak. Lumière anaien jatorrizko materiala eraldatzean, ekintza moteltzean eta existitzen ez den gune historiko bat berreskuratzean, film hori dokumentu zinematografiko bat izatetik esperientzia hipnotiko izatera igarotzen da eta irudiaren misterioa agerian geratzen da.

Guggenheim Bilbao Museoa antolatutako erakusketa.

Ken Jacobs

*Gonbidatuak* (*The Guests*), 2013 (fotograma)

Koloretako 3D filma, 74 min

Artistaren eskaintza



***Anni Albers: ikusmena ukitu***

2017ko urriak 6–2018ko urtarrilak 14

Aretoak: 305., 306. eta 307.ak

Komisarioa: Manuel Cirauqui

Anni Albers (Berlin, 1899–Orange, Connecticut, 1994) *fiber art* edo oihal artearen aitzindari izateagatik ezaguna da, baita etengabe bilatu baitzituen josteko/ehuntzeko motiboak eta oihalgintzaren eginkizunak. Kolonaurreko folkloreak eta industria modernoak inspiratutako artea izan zen, baina artisautzaren eta emakumeen lan delako nozioetatik askatu zen. Alber Weimar-eko Bauhaus eskola abangoardistan ikasi zuen; bertan ehungintza tailer bat zuzendu zuen 1931n, eta bertan ere ezagutu zuen Josef Albers pintorea, gerora senar bihurtu zena. Harekin joan zen AEBra, Ipar Carolinara, 1933an, naziek eskola itxi ondoren, Bertan bi artistak kontratatu zituzten eskola libre baterako irakasle: Black Mountain College zen, gerora AEBko artegintzaren modernotasunaren adibide bilakatu zena. Bertan Anni Albers irakaskuntzan eta arte-esperimentazioan lanean jardun zuen, eta oihal arte garaikidearen garapenerako oinarrizkoak izan ziren testuak idatzi zituen. *Anni Albers: ikusmena ukitu* erakusketak artistaren sail garrantzitsuenetatik ibilbide zehatza da, 1925ean hasi eta 1970eko hamarkadaren amaieran bukatzen dena. Argi ikusiko dira artelanen eta serieen arteko lotura formalak eta horiek agerian utziko dute Albersen artegintzaren hariak. Artista berezi honen ideiek eragin handia izan dutela eta oraindik ere indarrean daudela azalduko da erakusketan.

*Anni Albers Black Mountain College-ko oihalgintza tailerlean, 1937*

Argazkia: Helen M. Post

Honen eskaintza: Josef and Anni Albers Foundation, Bethany, Connecticut





**David Hockney: Erretratuak**

2017ko azaroak 10–2018ko otsailak 25

105. aretoa

Komisarioa: Edith Devaney

Paisaia monumentalaren erakusketa izan zuen Hockneyk Museoan 2012an eta horren ondoren margolaritzatik eta Yorkshire-tik, sorlekutik, aldendu zen artista; Los Angelesera itzuli zen. Bertan, apurka-apurka, erretratugintzara itzuli zen, hausnarketa lasaira. Garai honetako lehenengo erretratu bere estudioko arduradunari egin zion eta hainbat hilabetez genero horretan murgildu zen buru belarri. Sortzeko grina horri jarraiki, inguruko pertsona ugari gonbidatu zituen estudiora, modeloarena egin zezaten. Erretratututako pertsonaien artean —lagunak, familiakoak, ezagunak— estudioko kideak, artistak, arte arduradunak eta galerien jabeak daude, esaterako, John Baldessari edo Larry Gagosian. Tamaina berekoak dira erretratu guztiak eta guztietan modelo aulki batean dago eserita, hondo urdin bizi baten aurrean; lan bakoitza hiru egunetan margotu zuen. Nolanahi ere Hockneyren maisutasunak modeloaren nortasuna azalarazten du berehala, modu goxo eta hurbil batean batean. Erakusketa honetan David Hockneyk oldar sortzaile indarberritua erakusten du. Erretratuok Los Angelesko arte-giroko eta artistak azken urteotako ibilbidean aurkitu dituen pertsonen ikuspegi intimoa eskaintzen digute.

Royal Academy of Arts-ek, Londres, antolatutako erakusketa Guggenheim Bilbao Museoarekin elkarkidetzan

David Hockney

*Barry Humphries, 2015eko martxoak 26, 27 eta 28 (Barry Humphries, 26th, 27th, 28th March 2015), 2015*

Akrilikoa mihise gainean

121,9 x 91,4 cm

© David Hockney

Argazkia: Richard Schmidt



**Amie Siegel: *Negua***

2017ko azaroak 23–2018ko martxoak 11

Aretoa: Film & Video, 103.

Komisarioa: Manuel Cirauqui

Amie Siegel-en *Negua* (*Winter*, 2013) lanak film baten emanaldiaren esperientzia aldatu nahi du filmarentzat oinarrizkoa den elementu bat, soinu-banda, aldian aldiko bihurtuz. Filma erakusten den toki bakoitzeko musikari eta esatariekin lan egiten du artistak irudiaren bizipenean bestelako ikusizunetan ikusleek parte hartzeko erabili ohi diren baliabideak sartuz. Horrela pantailak ikuslearekiko sortzen duen distantzia apurtu nahi du. *Negua* proiektatzen den aretoa askotan publikoarentzat zabalik dagoen soinu-estudioa bilakatzen da askotan eta bertan tokiko antzezleek kutsu futurista duen istorioa esaten dute, istorioaren giroa bakoitzaren ñabardura dramatiko eta aldarteen arabera aldatuz. Ondorioz, narrazioa aldi bereko hainbat denboratan banatzea lortzen du artistak: musika emanaldiaren orainaldia, filmatutako irudiaren iragana eta zientzia fikzioaren etorkizuna. Istorioa Zelanda Berriko Khandallah lurralde bakartuan filmatu zuten, lan Athfield arkitektoak diseinatutako etxegune berezian, kolore txuria eta forma leun eta bitxiak dituzten eraikinetan. Filmean paisaia ikusgarri eta mortuan bizi diren komunitate utopiko baten kideen eguneroko bizitza erakusten da. Aldian aldiko esatarien arabera istorioaren norabidea aldatuz doa. Artelanaren bertsio egonkor eta aldaezin bat erakusten da artelana ikusgai dagoen egun gehienetan baina zuzeneko emanaldia dagoen momentuetan artelana ikustea esperientzia aparta, ahaztezina eta hurbilekoa bilakatzen da, horrek *Negua* erakusten den lekutik eta antzestu duten pertsonetatik banaezina egiten du.

Guggenheim Bilbao Museoa antolatutako erakusketa.

Amie Siegel

*Negua* (*Winter*), 2013

Koloretako bideoa, 16 mm-ko filmetik eraldatutakoa, soinuduna

33 min eta objektuekin performancea

Neurri aldakorak, edizioa: 4 aletik 3.

Solomon R. Guggenheim Museum, New York, Young Collectors Council-ek emandako funtsekin eskuratua, 2015

2015.44



### *Artea eta espazioa*

2017ko abenduak 1–2018ko apirilak 8

Bigarren solairuko aretoak

Komisarioa: Manuel Cirauqui

*Artea eta espazioa* erakusketaren abiaburuak Eduardo Chillida eskultorearen eta Martin Heidegger filosofoaren arteko elkartzeko historikoa eta horren ondorioz 1969. urtean argitaratu zen liburua dira, euskal eskultoreak bizipen horren ondorioz sortutako grabatuak bildu zituen. Oinarrizko erreferentzia horren inguruan, Guggenheim Bilbao Bildumaren artelan aukeratu batzuei esker, erakusketak Guggenheim Bildumetan presentzia duten gaur egungo nazioarteko artistek espazioaren esperientzia lantzeko modua aztertuko da, kasu askotan Guggenheim Bildumetan ere lanak dituzte artista horiek. Euskal Herriko artearen historian errotikoa den gai hau ikuspuntu berritzaile batekin aztertu nahi du erakusketa honek eta, aldi berean, Guggenheim Bilbao Museoaren espazio bereziaren dinamismo agortezina eta Guggenheim Bildumen arteko elkarrizketa emankorra azpimarratu nahi dira. Besteak beste, honako hauen artelanak hartuko ditu: Sir Anthony Caro, Eduardo Chillida, Olafur Eliasson, Lucio Fontana, Robert Gober, Zarina Hashmi, Eva Hesse, Cristina Iglesias, Prudencio Irazabal, Agnieszka Kurant, Sol LeWitt, Richard Long, Asier Mendizabal, Bruce Nauman, Damián Ortega, Jorge Oteiza, Pablo Palazuelo, Iván Navarro, Fred Sandback, Nobuo Sekine, Susana Solano, Lee Ufan eta Hague Yang, besteak beste.

Guggenheim Bilbao Museoa antolatutako erakusketa.

Eduardo Chillida  
*Aholkua espazioari V (Consejo al espacio V)*, 1993  
 Altzairua  
 305 x 350 x 350 cm  
 Guggenheim Bilbao Museoa

## TOKIKO ARTE-KOMUNITATEA ETA KULTUR ERAGILEAK

### **Tokiko arte giroa: artista hasiberrien lanak ikusgai**

XX. Urteurrenaren ospakizunen artean, tokiko arte-komunitatearekin lankidetzan egoteko interesari erantzuteko, Museoak EAEko artista eta sortzaile gazteei zuzendutako deialdi bat argiratuko du; horren bidez Museoan haien lana erakusteko eta ondorioz ikusgarriagoa egiteko eta zabaltzeko aukera izango dute.

Ekimen horretan izena emateko epea 2016ko amaieran irekiko da. EAEn jaiotako edo bertan bizi diren artistek parte hartu ahalko dute, arte plastiko diziplinetakoak (pintura, eskultura, instalazioa, bideoa eta abar) eta performance diziplinetakoak (arte iragankorra, gaur egungo dantza eta abar). Kultur erakundeetako ordezkariak osatutako epai-mahai batek aukeratuko ditu 2017ko udaberritik aurrera Museoan aurkeztuko diren lanak; artelanak Richard Serraren lanari eskainitako aretoaren ondoan jarriko dira ikusgai eta emanaldiak Atrioan egingo dira.

### **Inguruko kultur eragileekin lanean: TopARTE**

TopARTE programan ere EAEko hainbat kultur erakundeekin lan egingo du Museoak: dohainik eskainiko dizkie hainbat gune, hala nola, Entzungela, hezkuntza guneak eta Atria euren jarduerak egin ditzaten. Ekimen honek bi helburu ditu: batetik inguruko erakundeekin harremana estutzea eta bestetik publiko zabalarari EAEn garatzen diren proiektuen aniztasuna helaraztea. TopARTEk edozein diziplina har ditzake: musika, zinema, bideoa, dantza, performancea, gastronomia, antzerkia eta abar; gastronomiaren alde hasieratik egin zuen Museoak, egoitza duen tokiaren identitatearen zati dela ulertzen baitu.

Orain arte 40 kultur elkartek baieztatu dute proiektu honetan partaidetza eta hogeik ekimen zehaztu dira. TopARTEren programazioa dinamikoa izango da ospakizun-urte osoan eta Museoaren webgunean egongo da eskuragarri.



TopARTE programaren barruan honako hauek zehaztu ditugu dagoeneko:

<b>Ekintza</b>	<b>Urr.</b>	<b>Aza.</b>	<b>Abe.</b>	<b>Urt.</b>	<b>Ots.</b>	<b>Mar.</b>	<b>Api.</b>	<b>Mai.</b>	<b>Eka.</b>	<b>Uzt.</b>	<b>Abu.</b>	<b>Ira.</b>	<b>Urr.</b>
OLBE													
Bilboko Udal Musika Banda													
Bilbao 700 Fundazioa													
Kultura Zientifikoko Katedra													
Yox Kolektiboa													
Kraftwerk kontzertuak													
Diálogos de Cocina													
Fair Saturday													
FAS													
BAD jaialdia													
Haceria													
Institut Français													
Kuraia													
Loraldia													
La Fundación													
MEM													
Nerua Guggenheim Bilbao													
ZINEBI													

## 2. HERRITARREKIN OSPATZEN

Museoaren XX. Urteurreneko ospakizunaren hirugarren ardatza osatzen dute herritarrekin bat egiteko ospakizun-ekitaldiek. Hurrengo hilabeteetan emango du Museoan haien berri. Helburu dute tokiko publikoa urteurrenari batzea eta haiei eskertzea hogeitaz eginkizun garrantzitsua izan dutela Museoaren jardunean. Askotariko ekintzak izango dira eta belaunaldi guztietako pertsonak “Arteak dena aldatzen du” lema bere egin dezatela izango dute asmo.

Urriaren 21 eta 23 arteko asteburuan hasiko dira ospakizunak. Ostiral gauean Art After Dark DJ saioa izango da Museoko Atrioan. Larunbatean eta igandean doakoa izango da sarrera Museora, Iberdrolaren laguntzari esker. Larunbatean gainera *Hariak* dantza- eta antzerki-ikuskizuna hartuko du Entzungelan 19:00etan (17. BAD jaialdiaren barruan) eta Bilboko Udal Musika Bandak kontzertua emango du Atrioan 20:00etan (*Orkestra zuzendaritza topaketa* ikastaroaren itxiera-kontzertua izango da). Egun horretan 22:00ak arte izango da Museoa zabalik. Igandean, Tom Gold Dance konpainiak Tom Gold koreografoaren *November Steps* dantzatuko du Entzungelan, 19:00etan.

## TALDE BEREZIAK

Urteurreneko ospakizunetan leku berezia izango dute Museoak euskal gizartearen dituen sustraiak hoberen erakusten duten eta arrakastarako berebiziko babesa ematen taldeek: Kide Korporatiboek aukera izango dute eurentzat propio antolatutako jardueretan parte hartzeko; izan ere, haien ekarpenek Museoaren funtzionamenduari eta autofinantzaketa maila handiari laguntzen diete. Lagunek ere aukera izango dute Urteurrena ospatzeko haientzako berariaz prestatutako ekimenen bidez, haien fideltasunak eta konpromisoak Museoaren enbaxadore bihurtzen baititu.

## URTEURRENAREN MARKO ESTRATEGIKOA

Urteurrenaren ospakizuna 2015–2017 Plan Estrategikoaren barruan dago; izan ere, planaren amaiera ospakizunaren bukaerarekin bat egiten du. Plan horretan hainbat ekimen estrategiko daude hurrengo hogeitaz egiteko: teknologia aurrerapen handiek ekarritako industria iraultza baten aurrean gaude eta museoek eta kulturak duten eginkizuna, gizartearen begietan, aldatzen ari da. Gainera, Museoak orain arte garatutako Plan Estrategikoek muga izan dute 2020, eta, beraz, epe luzerako ikuspegia eskaini dute; hartara helburuak berriz zehaz daitezke eta Plana etengabe aldatzen ari den mundu globalizatura egokitu daiteke.

## GUGGENHEIM BILBAO MUSEOAREN ZIFRAK

### Bisitariak

**18.827.146** bisitari gaur egun arte

2.447.529 EAetik etorritakoak (%13)

4.895.058 Estatuko beste erkidegoetatik etorritakoak (%26)

11.484.559 atzerritar (%61): 3.387.052 frantses (% 18)

1.129.017 estatubatuar (%6)

### Erakusketak

**Aldi baterako 87** erakusketa, 2016ko abendura arte

**Bilduma Iraunkorraren 69** aurkezpen

Arrakasta handien izandako erakusketak (bisitari eguneko)	Urtea	Bisit.egun	Bisit. guzt.
<i>China: 5.000 urte</i>	1998	<b>5.790</b>	538.479
<i>Jeff Koons: atzera begirakoa</i>	2015	<b>4.702</b>	493.730
<i>Jean Michel Basquiat: Bada garaia</i>	2015	<b>4.682</b>	538.475
<i>Louise Bourgeois. Izatearen egiturak: Gelak</i>	2016	<b>4.301</b>	679.532
<i>David Hockney: ikuspegi zabalago bat</i>	2012	<b>4.212</b>	543.398
<i>Georges Braque</i>	2014	<b>4.097</b>	397.364
<i>Andy Warhol: Itzalak</i>	2016	<b>4.077</b>	829.618
<i>Cy Twombly</i>	2008	<b>3.989</b>	223.391
<i>Eduardo Chillida: 1948-1998</i>	1999	<b>3.979</b>	501.321
<i>Abangoardiako amazonak</i>	2000	<b>3.879</b>	283.181
<i>Yoko Ono: atzera begirakoa</i>	2014	<b>3.812</b>	613.754

25 aldi baterako erakusketek eta 31 Bilduma Iraunkorraren aurkezpek milioi erdi bisitari baino gehiago izan dituzte.

### Guggenheim Bilbao Bilduma

**130** artelan

**74** artista

**729** milioi eurotan balioztatua (hasierako 110 milioi euroko inbertsioaren ia 7 bider gehiago)

## **Eragin ekonomikoa** (1997ko urria–2015eko amaiera)

4.184.523.618 euroko gastu zuzena

3.841.524.752 eurotan aberastu zen BPGd

Batez beste 5.000 lanpostu gordetzen laguntzea

594.120.428 euroko sarrera gehigarriak Euskal Ogasun Publikorako

## **Hezkuntza jarduerak**

**536.862** ikaslek bisitatu dute Museoa 21.176 eskola-taldetan

**61.378** ikasle etorri dira **Frantziatik**

**15.044** hezitzailek hartu dute parte trebakuntza-saio berezietan

**254.666** hezitzailek erabili dituzte **sareko baliabideak**

**73.015** haurrek, ikasleez gain, esku hartu dute **haurrentzako tailerretan**

**1.592.561** partaide izan dituzte **bisitaldi gidatuek** 79.628 taldetan

**26.020** partaide izan dituzte **gizarte-ekintza** programek

## **Museoari babesa ematen dieten taldeak**

**16.356** Museoaren Lagun

**120** Kide Korporatibo

**8.034** Erdu

## TopARTE

### KRAFTWERK

Urriak 7-14

*The Catalogue - 1 2 3 4 5 6 7 8*

Guggenheim Bilbao Museoa musika elektronikoaren aitzindari Kraftwerk talde alemaniarraren zortzi kontzertu hartuko ditu 2016ko urriaren 7tik 14ra bitartean; horrela emango zaie hasiera Museoaren XX. urteurrenaren ospakizunei. Elkarren segidako zortzi gauetan *The Catalogue - 1 2 3 4 5 6 7 8* aurkeztuko du taldeak Museoko Atrioan. Emanaldi horiek taldearen soinua eta ikusizko esperimentazioak aztertuko dituzte, ordena kronologikoan, eta taldearen zortzi maisulan klasikoak laguntzeko hiru dimentsioko ikusizko efektuak baliatuko dituzte.

### BAD JAIALDIA

Urriak 22, larunbata, 19:00

*Hariak*

Museoa Bilboko Udalak antolatutako 17. BAD Jaialdiaren saio baten egoitza izango da. Oraingoan, *Hariak* diziplina arteko proiektua aurkeztu du, Asier Zabaleta koreografoak zuzendua eta Ertzak ekoitzia: bizitzaren hauskortasunaz hitz egiten du, aitzakiatzat baliatuz benetako istorioak, gogorak zein alaiak, Harkaitz Canok egokituak.

### BILBOKO UDAL MUSIKA BANDA

Urriak 22, larunbata, 20:00

Bilboko Udal Musika Bandak zuzendari gazteentzako I. Orkestra Zuzendaritza Topaketaren itxiera-kontzertua emango du; Gustav Holst-en, Hidas Frigyes-en, Johan de Meij-en etay Giacomo Puccini-ren lanak joko dituzte.

### BILBAO JAZZ MATINÉ

Urriak 30 eta azaroak 6 eta 27, hirurak igande, 12:30

Edonolako publikoarentzako, bereziki familientzako, kontzertu hauetan jazz beste diziplina batzuekin uztartuko dute, hala nola, bertsolaritzarekin eta *live painting*ekin, bai eta beste musika estilo batzuekin. Bilbao 700 Fundazioak antolatutako jarduera.

**Urriak 30:** Igelaren Banda & Miren Amuriza-Beñat Gaztelumendi

**Azaroak 6:** Elkano Browning Cream & Quim Moya

**Azaroak 27:** Itxaso Trio & Fermín Etxegoien

**NAZIOARTEKO ARTE ESPERIMENTAL MEM JAIALDIA****Azaroak 3, osteguna, 19:00**

Zosia Holubowska artista poloniararen *Rusalki. Serfdom. Lament* performancea hartuko du Museoak, musika esperimentalaren, ekialdeko Europako emakumeen musika usadioaren eta genero eta sexu-identitate aniztasuna onartzen duten gizarte espazioen arteko harremanak aztertzen dituena.

**KURAIJA JAIALDIA****Honako kontzertu hauek hartuko ditu Museoak 2016ko Kuraia jaialdiaren barruan.****Azaroak 13, igandea, 19:00***Ensemble d'Arts: multimedia kontzertua*

Musika-tresna akustiko eta elektroakustikoak joz eta bideoak proiektatuz egindako emanaldia; Miguel A. Berbis (musika elektronikoa), Xelo Giner (saxofoia), Jenny Guerra (biolina).

**Azaroak 17, osteguna, 19:00**

Die Ordnung Der Dinge Berlineko taldeak askotariko forma eta bitartekoren arteko itzulpen-aukerak, esaterako argiaren eta musikaren artean, aztertuko ditu musika-antzerki honetan.

**OLBE****Azaroak 18, ostirala, 19:15**

Fernando Fraga idazle eta musika-kritikariaren hitzaldia, Rossiniren *La Cenerentola* opera azaroaren 19an estreinatuko dela eta. Teresa Berganza mezzosopranoari egingo zaio omenaldia, maiz opera horretan Angelinarena egin baitu.

**ZINEBI****Azaroak 22, asteartea, 17:00etatik aurrera**

*Euskal zinemaren* underground *jatorria* programan 1975eko otsailaren 14an Bilboko Cineclub Unibertsitariok antolatutakoari omenaldia egiten dio.

**17:00:** *Necrosis* (M. Ortuoste/J. Rebollo, 1971)*Juan y Pedro* (J. Rebollo, 1972)*Pelotari* (N. Basterretxea/F. Larruquert, 1964)*Ere erera baleibu izik subua aruaren* (J. A. Sistiaga, 1970)**19:15:** *Bi* (*A Man Ray for Marcel Duchamp*) (J. J. Bakedano, 1972)*Arriluce* (J. Rebolledo, 1974)*Contactos* (P. Viota, 1970)*Rumores de furia* (A. Meriaketxebarria, 1973)**21:15:** Mahai-ingurua Santos Zunzunegui komisario eta bertaritzen diren film zuzendariekin



## **DANTZALDIA -La FuNdicíÓn-**

**Azaroak 26, larunbata, 19:00**

Po-Cheng Tsai taiwandar koreografoak sortutako hainbat talde eta bakarkako koreografia dantzatuko ditu haren Po-Cheng Tsai konpainiak, 17. Dantzaldian.

## **FAIR SATURDAY**

**Azaroak 26, larunbata**

Jarduera hauek artea eta kultura gizartearen protagonista bihurtzen dituzte mundu osoan: artisten eta kultur erakundeen lana eta eraldatzeko ahalmena aintzat hartzen dute eta zabaldu egiten dute; gainera, gizarte-proiektuei baliaabideak eskaintzen dizkiete.

**Rossini Abesbatza**, 12:00, Museoko Atrioan

**Kantika**, 18:00, Museoko Atrioan

## **HACERIA ARTEAK – ZAWP**

**Urtarrilak 15, igandea, 18:00**

*El abrazo de Heróntidas*

Haceria konpainiak Richard Sahagún-ek idatzitako eta zuzendutako lana antzeztuko du Ander Anandalan-en musikaz lagunduta. Publiko ororentzako tragedia grekoa.

## **BILBOKO INSTITUT FRANÇAIS**

**Urtarrilak 20 eta 27, biak astelehen, 18:00**

Opera ikuskizunak emango dira Aix-en-Provence-ko Opera Jaialdian antzezten diren bitartean Arte telebista-kateari esker:

*Pelleas eta Melisande*, Claude Debussy; musika-zuzendaria: Esa-Pekka Salonen  
(frantsesezko jatorrizko bertsioa, frantsesezko azpigituluekin)

*La Traviata*, Giuseppe Verdi; musika-zuzendaria: Louis Langrée (italierazko jatorrizko bertsioa, gaztelaniazko azpigituluekin)

## **DIÁLOGOS DE COCINA**

**Urtarrilak 31, asteartea, 18:00**

Andoni Luis Adurizek Diálogos de Cocina ekimena hainbat urtez antolatzearen azpian dauden zergatiaz hitz egingo digu, eta sukaldaritzaz "kode ireki" bat bezala ulertzera gonbidatuko gaitu.

## NERUA GUGGENHEIM BILBAO

*Solasaldia: Sormena gastronomian* (datak zehazteke)

Munduko gastronomiaren ordezkari handi diren sukaldariek eta Nerua Guggenheim Bilbao jatetxeko Josean Alijak sormenaren gaia jorratuko dute hainbat solasalditan. Publikoarekin partekatuko dituzten haien jakintzak eta esperientziak. Guggenheim Bilbao Museoak duela hogeitun urte goi-sukaldaritzaren alde egindako apustuari omenaldia izango da.

## LORALDIA

### III. LORALDIA

Diziplina anitz hartzen dituen euskal kulturaren aldeko jaialdia da:

#### **Martxoak 12, igandea, 12:30**

Dantza Konpainiaren *Txoriak*, Mikel Laboaren abestian oinarritutakoa.

#### **Apirilak 2, igandea, 12:30**

*Geroa*, Kirmen Uribe olerkilari eta idazlearen, Ohiana Bartra eta Alaia Martin bertsolarien eta Ángel Unzu musikagilearen eskutik.

## EHUKO KULTURA ZIENTIFIKOKO KATEDRA

**Apirilak 6 eta 27 eta maiatzak 11 eta 25, guztiak ostegun, 19:00–21:00**

Arte eta zientziaren arteko loturak aztertuko dituzte lau jardunaldi hauetan artistek eta hainbat eremutako profesionalek, bi alor horiek zerikusi handirik ez dutelako ustea zabaldua dagoen arren.

*La ciencia que atesora y revela nuestro legado artístico:* Oskar González, Ainhoa Sanz eta Aitziber Velasco.

*Conocimiento y representación de la naturaleza:* José Ramón Marcaida eta Clara Cerviño.

*Analogías entre el arte y la ciencia como formas de conocimiento:* Juan Luis Moraza eta Pau Alsina.

*La ciencia como herramienta del arte:* Deborah García, Jacobo Castellano eta Sergio Prego.

## FAS ZINEKLUBA

**Maiatzak 13 eta 20, biak larunbat, 17:30–20:00**

*Narrazioaren apurketa gaur egungo zineman: Apichatpong Weerasethakul-etik Albert Serra-ra*

Bi film emango dira zinema ziklo labur honetan:

*Mysterious Object at Noon*, Apichatpong Weerasethakul-ena; aurkezpena Txus Retuertok egingo du eta ondoren solasaldia egingo (FAS Zineklubaren lehendakari ordea, filosofoa eta zuzendari horren lanetan berezitua da)

*La mort de Louis XIV*, Albert Serra-rena, aurkezpena zuzendariak egingo du, eta ondoren solasaldia egongo da

## ESTUDIO YOX

Ekainak 8, osteguna, eta 9, ostirala, 17:30–20:00

*Fashion and Films II: Dressing Ideas in Films*

Nazioarteko modaren inguruko ikus-entzunezkoen programa bat da; gizarte gaiak lantzen dituzten moda-dokumentalen eta bestelako formatuek.

### Informazio gehiagorako:

Guggenheim Bilbao Museoa  
Marketing eta Komunikazio Arloa  
Tel: +34 944 359 008  
[media@guggenheim-bilbao.es](mailto:media@guggenheim-bilbao.es)  
[www.guggenheim-bilbao.es](http://www.guggenheim-bilbao.es)